

Boluntariotzaren hastapenak. Unibertsitateko ikasleen prestakuntza gizarte-eraldaketarako

Online prestakuntza-unitatearen ikasketa-plana



UPV/EHUko ikasleentzako prestakuntza-proposamena:

- Iraupena: 12,5 h
- Ikastaroaren hizkuntzak: euskara eta gaztelania

Boluntariotzaren hastapenak. Unibertsitateko ikasleen prestakuntza gizarte-eraldaketarako

1. Aurkezpena

Bere inguruarekin konprometituta dagoen eragilea den aldetik, Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) konpromiso soziala sustatzen du eta elkartasuna eta justizia soziala bultzatzen ditu unibertsitateko komunitatearen barruan. Konpromiso hori boluntariotza-ekintzen bidez gauzatzen da, batetik, eta irabazi asmorik gabeko erakundeekin dugun lankidetzaren bidez, bestetik. Halakoek gizartean eragin positiboa izateaz gain, ikasleen prestakuntza integrala sustatzen dute.

Boluntariotzaren hastapenak. Unibertsitateko ikasleen prestakuntza gizarte-eraldaketarako ikastaroaren helburu nagusia da boluntariotzari eta partaidetza sozialari buruzko ezagutza eta hausnarketa sustatzea, balioak garatzea eta unibertsitateko ikasleen konpromiso solidarioa mobilizatzea. Hauek dira ikastaroaren helburu zehatzak:

- Boluntariotzaren eta partaidetza sozialaren garrantzia azpimarratzen laguntzea, gizarte konprometitu baten adibide eta garapen sozialerako tresna diren aldetik.
- Boluntarioen lana arautzen duen lege-esparrua (Estatukoa eta Euskadikoa) aurkeztea.
- Unibertsitate barruan eta kanpoan boluntario jarduteko dauden aukerak azaltzea eta ekintzaren bat bultzatzeko edo ekintzaren batean parte hartzeko beharrezko informazioa ematea.

Horretarako, online ikastaro honetan bildutako material eta tresnen bidez, boluntariotzarekin eta partaidetza sozialarekin zerikusia duten ideiak, kontzeptuak eta esperientziak azalduko zaizkie ikasleei, elkartasunaren arloa, hari dagokion testuingurua, bertan parte hartzen duten eragileak eta arlo horren ezaugarriak ezagutu ditzaten. Horrekin batera, boluntariotzan oinarritutako erakunde eta proiektuei buruzko informazioa ematen da, bai eta erakundeen kontaktuak ere, ekintza solidarioen batean parte hartu nahi duten ikasleentzat.

Ikasketa-planak honako atal hauek dauzka:

- | | |
|--------------------|--------|
| 1. Aurkezpena | 2. or. |
| 2. Gaitasunak | 3. or. |
| 3. Edukiak | 3. or. |
| 4. Lan-metodologia | 4. or. |
| 5. Lanerako plana | 5. or. |
| 6. Ebaluazioa | 5. or. |
| 7. Egutegia | 5. or. |

8. Bibliografia eta informazio-iturriak

6. or.

Ikastaro hau UPV/EHUko ikasle guztiei zuzenduta dago. Bereziki interesgarria da gizarte-erakundeetan eta UPV/EHUren berezko programetan elkartasun- eta lankidetzajarduerak egin eta horiengatik hautazko kredituak jaso nahi dituzten graduko ikasleentzat (<https://www.ehu.eus/eu/web/iraunkortasuna/boluntariotzarekin-bat>), prestakuntza hau ezinbestekoa baita kreditu horiek eskuratzeko.

Euskadiko boluntariotzaren eta partaidetza sozialaren alorreko hiru agentziarekin batera prestatu dugu ikastaroa: [Bolunta](#) (Bizkaia), [Gizalde](#) (Gipuzkoa) eta [Batekin](#) (Araba).

2. Gaitasunak

Ikastaroa amaitutakoan, hauxe espero da parte-hartzaileengandik:

- Boluntariotza zer testuinguru sozialetan egiten den deskribatzea, *boluntariotza* kontzeptua definitzea eta haren funtsezko ezaugarriak eta bultzatzen duten printzipio eta balioak azaltzea.
- Boluntariotzaren azpian dauden balioak eta justizia soziala eta Agenda 2030en Garapen Jasangarrirako Helburuak sustatzeko duen gaitasuna identifikatzea.
- Boluntarioen lana arautzen duen lege-esparruan (45/2015 Legea eta 17/1998 Legea, Boluntarioei buruzkoa) sakontzea.
- Boluntarioen eta boluntariotza-erakundeen eskubideak eta betebeharrak aintzat hartzea, indarrean dauden arau eta legeetan oinarrituta.
- Boluntariotza-motak eta ekintza-arloak izendatzea.
- UPV/EHU boluntario-lana egiteko dauden aukerak, ekintza horien ezaugarriak eta ibilbidea, eta haiengatik kredituak lortzeko prozedura ezagutzea.

3. Edukiak

Ikastaroaren edukia sei bloke tematikotan antolatu dugu. Hona hemen sei blokeak eta bloke bakoitzeko atalak:

- **1. bloke tematikoa. *Boluntariotza* kontzeptua, printzipioak eta balioak**
 - Partaidetza soziala eta boluntariotza
 - Boluntario izatea
 - *Boluntariotza* kontzeptua
 - Boluntariotzaren ezaugarriak

- Printzipioak eta balioak
- **2. bloke tematikoa. Boluntariotzaren ekarpenak gizarteari**
 - Hirugarren sektore soziala EAEn
 - Boluntariotza eta garapen jasangarrirako Agenda 2030
 - Unibertsitatea eta Agenda 2030. UPV/EHUren gizarte-konpromisoa
- **3. bloke tematikoa. Lege-esparrua, eskubideak eta betebeharrak**
 - Boluntariotzaren lege-esparrua
 - Boluntariotzaren arloko legeak
 - Boluntarioen eskubide eta betebeharrak
 - Boluntarioen eskubide eta betebeharrei buruzko ohiko galderak
 - Boluntariotza-erakundeen eskubide eta betebeharrak
- **4. bloke tematikoa. Boluntariotza-motak**
 - Jarduera-eremuak
 - Zeregin-motak
 - Nola aukeratu boluntariotza-mota eta -erakundea
- **5. bloke tematikoa.- Erakunde batean sartzeko prozesua**
 - Hasierako elkarrizketa
 - Lanean hastea
 - Jardun boluntarioa gauzatzea
 - Jardun boluntario egiten uztea eta ziurtagiria
 - Boluntariotza erakundearen barruan
- **6. bloke tematikoa. Boluntariotza unibertsitatean**
 - Nola parte hartu UPV/EHUK babestutako boluntariotza-jardueretan
 - Boluntariotzak unibertsitateko ikasleei dakartzkien onurak
 - Kredituak lortzea egindako boluntariotza-lanagatik

4. Lan-metodologia

Ikastaro honen helburua boluntariotzari eta partaidetza sozialari buruzko ezagutza eta gogoeta bultzatzea denez, ikastaroa osatzen duten sei bloke tematikoetan materialez gain eduki teorikoak (irakurgaiak eta ikus-entzunezkoak), programen eta proiektuen webguneen estekak eta ariketa praktikoak (autoebaluazioa egiteko galdera-sortak) jaso ditugu.

Online ikastaro hau UPV/EHUko unibertsitate-komunitatearentzat dago eskuragarri, dohainik, eGELApi plataformaren bidez (<https://egelapi.ehu.eus>). Hantxe aurkitu daitezke ikastaroko material guztiak: oinarriko irakurgaiak, ikus-entzunezko materialak, landutako edukiari buruzko irakurgai osagarriak eta webgune interesgarrien estekak. Horrez gain,

plataforman foro bat sortu da zalantzak eta iradokizunak bidaltzeko edo iritziak eta materialak trukatzeko, eta harremanetarako e-mail bat ere badago.

5. Lanerako plana

Lanerako plana ikastaroa egituratzen duten sei blokeen inguruan garatzen da. Hona hemen bloke bakoitzeko materialak eta ariketak eta Bloke Tematiko bakoitzerako (BT) aurreikusitako dedikazioa.

- **1. BT. Boluntarioria kontzeptua, printzipioak eta balioak (2 h)**
 - 1. oinarrizko irakurgaia (1I)
 - 1. galdera-sorta (1G)
- **2. BT. Boluntariorien ekarpenak gizarteari (2 h)**
 - 2. oinarrizko irakurgaia (2I)
 - 2. galdera-sorta (2G)
- **3. BT.- Esparru juridikoa, eskubideak eta betebeharrak (2,5 h)**
 - 3. oinarrizko irakurgaia (3I)
 - 3. galdera-sorta (3G)
- **4. BT.- Boluntarioria-motak (2 h)**
 - 4. oinarrizko irakurgaia (4I)
 - 4. galdera-sorta (4G)
- **5. BT.- Erakunde batean sartzeko prozesua (2 h)**
 - 5. oinarrizko irakurgaia (5I)
 - 5. galdera-sorta (5G)
- **6. BT.- Boluntarioria unibertsitatean (2 h)**
 - 6. oinarrizko irakurgaia (6I)
 - 6. galdera-sorta (6G)

Bloke tematiko guztiek material osagarriak edo sakontzeko materialak eskaintzen dituzte.

6. Ebaluazioa

Ariketa ebaluagarrien bidez egiaztatuko da ikasleak ekintza solidario bati ekiteko beharrezko ezagutzak lortu dituen.

Ebaluazioa egiteko, ikasleak edukiak irakurri eta bloke tematiko bakoitzeko galdera-sortak erantzun beharko ditu. Ebaluazioa gainditzeko 10,0tik 7.0 puntu lortu behar dira gutxienez. Ikasleek bi aukera dituzte galdera-sortak erantzuteko.

Ondorengo taulan bloke tematiko bakoitzari dagozkion ariketak ageri dira, eta ariketa bakoitzak azken notan duen pisua.

Bloke tematikoa	1		2		3		4		5		6	
Irakurgaiak	1I	% 6,6	2I	% 6,6	3I	% 6,6	4I	% 6,6	5I	% 6,6	6I	% 6,6
Galdera-sorta	2G	% 10	2G	% 10	3G	% 10	4G	% 10	5G	% 10	6G	% 10
Azken kalifikazioaren ehunekoa	% 16,6		% 16,6		% 16,6		% 16,6		% 16,6		% 16,6	

Ikastaroan «gai» kalifikazioa lortzeko beharrezkoa da oinarriko eduki guztiak irakurtzea (1Etik 6Era), galdera-sorta guztiak erantzutea (1Gtik 6Gra) eta gutxienez % 70eko kalifikazioa lortzea.

7. Egutegia

Ikastaro hau eskolarik gabeko modalitatean egiten denez, ez dago modulu tematikoak irekitzeko/ixteko edo ariketak egiteko ordutegi/egutegi zehatzik.

Gai bakoitza egiteko behar den denbora 5. atalean zehaztu da (Lanerako Planean).

8. Bibliografia eta informazio-iturriak

Dokumentu interesgarriak:

- 17/1998 Legea, ekainaren 25ekoa, Boluntarioei buruzkoa.
- 45/2015 Legea, urriaren 14koa, Boluntarioei buruzkoa.
- *Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren Liburu Zuria. Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokiko Taldea*. 2015. Eskuragarri hemen: https://3seuskadi.eus/wp-content/uploads/LIBRO-BLANCO_eus_2.pdf.
- *Objetivos de Desarrollo Sostenible. Información y guía para las organizaciones de voluntariado*. UN Voluntarios. Eskuragarri hemen: https://www.unv.org/sites/default/files/UNV%20QA%20on%20SDGs_web_S.pdf.
- *Transformar nuestro mundo. Agenda 2030 para el desarrollo sostenible*. Nazio Batuen Erakundea, 2015. Eskuragarri hemen:

<https://www.un.org/sustainabledevelopment/es/2015/09/la-asamblea-general-adopta-la-agenda-2030-para-el-desarrollo-sostenible/>.

Ikus-entzunezko materialak:

- *Elkartasun eta lankidetzaz jarduerak*. UPV/EHU. 0'54". Eskuragarri hemen: <https://vimeo.com/344281738>.
- *Sareen Sarea, la importancia del trabajo en red*. 1'15". Eskuragarri hemen: <https://youtu.be/1A3N6IDPxL0>.
- *Participar para transformar*. Bolunta. 3'23". Eskuragarri hemen: <https://youtu.be/YNouqw4lsxl>.
- *Euskadiko Hirugarren Sektore Soziala gara*. Sareen Sarea. 1'08". Eskuragarri hemen: <https://youtu.be/lhlXqQInmoU>.
- *Boluntariotza: Norabide Biko Bidea*. UPV/EHU. 2'54". Eskuragarri hemen: <https://vimeo.com/362292835>.